

**DE AVIONES Y MAIZALES
TIERRA DE DURANGO
URKIOLA, 20 URTE
ETORKINAK**

astola

ikerketa eta historia

DURANGALDEKO
URTEKARIA

3 zk. 2009
se


URKI

20 URTE

LUCES Y SOMBRAS
DEL PARQUE NATURAL



HAN PASADO 20 AÑOS desde la declaración de Urkiola como el primer PARQUE NATURAL de la C.A.V. Desde ASTOLA queremos hacer un balance de las luces y las sombras que han acompañado durante este tiempo a un espacio que por encima de sus innegables valores naturales, es para todos los habitantes de Durangaldea un lugar entrañable, y una de nuestras mayores señas de identidad. Para ello hemos cedido la palabra a varias personas que desde diversas sensibilidades y cometidos han sido partícipes de la breve historia del parque, preguntándoles sobre la incidencia del parque en su entorno y los retos de futuro.



EXTENSIÓN:

- 5768 ha. (Araba 15%, Bizkaia 85%)

CENTRO DE INTERPRETACIÓN:

- TOKI ALAI: 94 681 4155

MUNICIPIOS CON TERRENO EN EL PARQUE:


- Abadiño, Amorebieta-Etxano, Atxondo, Dima, Durango, Mañaria, Izurtza y Aramaio

2.5km

**URKIOLAKO PARKE
NATURALA**



**PARQUE NATURAL
DE URKIOLA**



JON SÁENZ AGIRRE

*URKIOLAREN ALDEKO BATZORDEko kidea
90eko hamarkadan*

Natur parkearen 20 urteotako balantza

Orokorrean positiboa egiten dut. Argi dago gune grisak (adibidez baso kudeaketa) eta beltzak (Mañariako harrobiak) badaudela, baina hogeい urte atzera begiratuko bagenu, konturatuko ginen orduko egoera gaurkoa baino txarragoa zela. Zenbait tokitan landaredia babestuago dago orain orduan baino. Hala ere, iaz, esaterako, oso gune zabaleko zuhaitzak ebaki zituzten Saibigain eta Eskuagatzen inguruan. Gehienak pinuak ziren, baina denak ez, eta pago batzuk ere jauzi ziren ustiapen horretan. Harrobi bi desagertu dira Atxarten, baina Mañariakoak inoiz baino indartsuago daude. Nahiz eta gaur egun parke-barruko kotxeen kopuruak behera egin duen, posiblea da oraindik ere motorraren bat edo beste topatzea barruko bidezidorretatik. Ehiztariak aurkitzen ditugu barruan urtero, eta, kotxean badoaz ere, ez da arraroa ehiza-tokietan mota guztietako zaborra aurkitzea (kartutxoak edo latak). Kotxez joanda, erraza izango litzaieke ehiztariei zaborra etxera eramatea. Parkeko guneak babestuta egon arren, inguruko gune batzuk parketik kanpo gelditu dira eta aspaldian eskatzen genuen bezala, inguruko guneetan ere babesa arinagoa egon beharko litzateke. Gune batzuk kanpoan gelditu dira (adibidez, Udalatx), baina arrazoi sendorik gabe. Hobera egin dugu, orokorrean, baina bikaina ez dugu oraindik lortu.

Parkeak zer eragin izan du natur babesean

Zenbait gauzatan badakigu eragina oso positiboa izan duela Parkeak. Gune batzuetan abereen kontrako hesiak ipini dituzte eta abereak ezin dira dagoeneko barrura sartu. Bertan, landaredia berreskuratzen ari da, agerian dago hango zuhaixkak hazten ari direla denborak aurrera egin ahala. Hori, adibidez, Atxarteko maldetan edo Arrietabasoko turbategietan gertatzen ari da. Gune txikiak dira eta agian haien azalera soilik kontuan hartuz gero, arbuiagarritzat hartuko genituzke ekintza hauen ondorioak. Baina, kualitatiboki, uste dut txoko horietan aurrerapauso garrantzitsu batzuk badaudela eta hori ezin dugu ukatu. Beste zenbait gauzatan, ez dut nik inolako aurrerapausorik ikusten. Ehizaren asuntoan, esaterako, ez dut uste benetako aldaketarik dagoenik. Beste horrenbeste esan genezake harrobiei buruz. Ematen du natura babestu behar dela, baldin eta interes ekonomiko handiak ez dauden bitartean.

Gizartearen nolako harrera izan du

Biztanlegoaren gehiengo zabalak oso modu positiboan hartu zuen Parkearen izendapena. Agian basoetako ugazaba batzuk, mendian ahuntzak aske zituzten batzuk edo harrobietan lan egiten zutenak beste iritzi batekoak izango ziren garai hartan, baina orokorrean, jendeak modu onean ulertu zuen natura babestu behar zela. Orduan eta orain, ez diogu gizarteari hori azaldu behar. Hortik arriskua etor liteke. Gehiengoa hirian bizi da eta Urkiola moduko parkeak gehiago ikusten dira aisialdi-guneak benetako natura parkeak izango balira baino.

►►► **Continúa en página 48**

 Protestas en Atxarte, 1990
Pablo Garitaonandia



PELI MANTEROLA

Bizkaiko Foru Aldundia.

Mendi eta naturguneen zuzendaria

1. Zein da 20 urteotako balantza?

5.768 baso ha. kudeatzen doguz Urkiolan eta Iur eremu hori dagoan moduan mantentzeak lana eskatzen dau bizi doguzan garai honeetan, kutsadura eta bestelako mehatxuak, naturaren eta nekazaritza eta bestelako jarduera ekonomikoekin mantendu beharreko oreka... kontuan hartzekoak dira.

2. Zelango harrera izan dau gizartean?

Ikusi besterik ez dago, jendeak zelan hartu dauan Urkiolako parkea, aisiaidiko erreferente, Bizkaiko simbolo eta naturaren gordeleku. Baino inguruko bistanleek, bisitariek eta parkearen kudeaketan parte hartzen daben guztien implikazio handia erakutsi dabe urteotan, parkearekiko euren kezkak eta ekimenak planteatuta.

Gizarteari dagokionean, Toki Alai informazio zentroa aipatuko neuke, Bizkaiko Foru Aldundiak garatu dauan proiektu interesgarria da, Urkiolako Parke Naturaleko Harrera eta Interpretazio Zentroa da eta.

3. Parkea mugatzeko zein irizpide erabili ziran?

Eusko Jaurlaritza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak eskatuta, Parke Natural izendatu zan Urkiola, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 1990eko urtarrilaren 4an argitaraturiko abenduaren 29ko 275/1989 Dekretuaren bitartez. Izendapen hori Eremu Naturalen

eta Basoko Landarediaren nahiz Faunaren Kontserbazioari buruzko Legeak eskainitako eremuaren barruan, eta eremu horri parke naturalen babes araubide berezia emon jakon.

Geroago, Eusko Jaurlaritzak, Nekazaritza eta Arrantza Sailak eskaturik, Urkiolako Baliabide Naturalak Antolatzeko Plana onetsi eban; holan, Urkiolako Parke Naturaleko baliabide naturalen plangintza eta kudeaketarako tresna eratu zan eta ordutik ohiko mekanismoak erabilikilia berrikuspenak eta aldaketak planteatzen dira kudeaketa ona bermatzeko. Parkea maila desbardinetan dago mugatuta gaur egun.

Bereziki babestutako gunea dago alde batetik, oso garrantzitsua da gune hau osatzen dabentz eremuak zaintza, han dagoen landarediak edo faunak daukazan ezaugarriengatik... eta gainera gune horietan gutxi eraldatu diren ekosistemak dagozalako.


Harrera eta igarotzeko gunea Urkiolako santutegiak, haren inguruneak eta ekosistemek osatzen dabe. Errepide ondoan kokatuta dago Urkiolako mendatearen eta Errekete gana mendiaren artean.

Hirugarren zonaldea baso eta abeltzaintza gunea da. Basoko lanetarako edo abeltzaintzarako erabili ohi dira lurrok. Azkenik, Abeltzaintzarako gunea, harriz betetako lur eremua da hau, goi goian dago eta bertan kare-harri multzo ugari ikus daikeguz parkearen mendebaldean.


►►► **Continúa en página 48**




Argazkia: Imanol Retes.



Argazkia: Txelu Angoitia.





ANTTON ARANBURU ALBIZURI

*Jefe del Servicio de Biodiversidad
del Gobierno Vasco*

La Declaración del Parque Natural de Urkiola hay que enmarcarla en la Política de Espacios Protegidos de la Comunidad autónoma del País Vasco. En efecto, al inicio de la andadura autonómica, no existía ningún espacio natural protegido como tal, amparado por una legislación específica de protección de la naturaleza.

 **Argazkia:** Txelu Angoitia.



El territorio es sin duda un referente identitario del pueblo vasco y el entorno de las crestas calizas de Durangalea, constituye uno de los lugares más emblemáticos de esta identidad dentro de nuestra geografía. El Parque Natural vino a ratificar un paisaje espectacular en el que los usos y costumbres ancestrales han permitido mantener un nivel de originalidad ambiental considerable. No es extraño por tanto, que fuera el primer espacio protegido declarado como Parque Natural dentro de nuestra comunidad.

Con la declaración se ratificaba un nuevo reconocimiento y se adquiría un compromiso por parte de la comunidad de conservación y restauración de los valores ambientales y culturales así como de profundizar en la investigación y gestión acordes con el conocimiento.

Bajo este aspecto sociológico del Patrimonio Natural, quiero hacer especial mención a todas las asociaciones y federaciones de montaña, y grupos ecologistas en general por la labor de difusión, participación y valoración de nuestros

 **Argazkia:** Ojanguren.



montes, ríos, cuevas, litoral, etc. realizada durante décadas. Creo que estas asociaciones con la programación de actividades, jornadas, protestas, etc., generaron la concienciación pública necesaria para la iniciación de la Política de Conservación que antes aludida y que tuvo como primer resultado la declaración por Ley específica de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, con criterios de delimitación y gestión basadas en aspectos ambientales, novedosa hasta entonces en la política de protección de la naturaleza.

El Parque Natural de Urkiola, fue declarado en segundo lugar, delimitándose fundamentalmente con criterios de la inclusión de los Montes de Utilidad Pública, aplicándose la Ley de espacios naturales protegidos estatal. Más tarde y al amparo de la nueva Ley vasca de Protección de la Naturaleza aprobada por esta comunidad se han ido declarando el resto de parques Naturales y biotopos protegidos, sin olvidar la catalogación de la flora y fauna en peligro para la que en la actualidad existen también aprobados algunos planes de gestión específicos.

 **Argazkia:** Doliwa.



Entrando en la gestión del Parque Natural de Urkiola y de los espacios protegidos en general es necesario constatar la complejidad que supone dar satisfacción a la multitud de demandas que se plantean, en un extenso territorio como el de Urkiola. En principio, existen una planificación y una gestión diferenciada de los espacios, competencia del Gobierno Vasco y de las Diputaciones Forales respectivamente. En el caso concreto de Urkiola, cabe mencionar la distribución territorial entre Alava y Bizkaia y que debía integrar, a mi juicio, en

el futuro a Gipuzkoa, incluyendo a Udalatx como parte de la misma unidad geológica de calizas e incluyendo a Besaide como lugar testimonial del montañismo vasco entre otros.

Los Patronatos como órganos de participación de intereses tanto administrativos como sociales, centran el debate continuo de las múltiples propuestas de gestión y administración de los espacios protegidos, no siempre con soluciones consensuadas. En todos estos espacios, existen problemas, y en el Parque de

 **Argazkia:** Txelu Angoitia.



Urkiola, cabe destacar específicamente el de la existencia de varias canteras o las repoblaciones forestales con especies de crecimiento rápido tanto en su interior como en los límites de su entorno inmediato. Estos problemas han sido ampliamente debatidos y sentenciados en ocasiones, sin que las soluciones satisfagan a todos e incurriendo, en casos, con soluciones contradictorias en las que los objetivos de

►►► *Continúa en página 49*





ONINTZE OLEAGA

Atxondoko zinegotzia Urkiolako patronatuan

Urkiolako Parke Naturalak 20 urte bete ditu, nik ez ditut askoz gehiago. Hori dela eta, zer esango dut nik 20 urteetan egin denaz?

Urkiolako Parke Naturalaren historia ez dut asko ezagutzen, baina duela bi urte Parkearen funtzionamenduaren partaide egin ninduten Atxondoko Udalaren ordezkari gisa. Gure herriak hainbat lursail ditu Parkearen barruan, suposatzen dut, bere egunean erabaki hori lursail horien natur babesea bermatzeko hartuko zutela Atxondoko agintariekin.

Hala ere, zein babes eskaini dezake parke natural baten barruan harrobi ustiakuntzak baimentzen dituen erakunde batek? Galdera honek erantzun zaila du. Gaur egun arte baso eta pinudien jabeei beren eskubideak erraz murriztu zaizkie, izan ere, pinuaren birlandaketa eta lursailen erabilera mugatu egin baita. Baino ez da horrelakorik gertatu harrobien ustiakuntzari dagokionez: Parke Naturalaren barruan gure mendietako harrien ustiakuntza onartu baita.

Era berean, nola uler daiteke, parkearen mugak harrobi ustiakuntzen arabera erabakitzea? Mañariko atarian han dauzagu zain, egunero egunero bi harrobi izugarri guri harrera on baino eskasago bat egiteko prest, bai Mugarra zein Untzillatx mendiak txikitzen, ez al dute bi mendi horiek beren osotasunean natur babes berezi bat merezi?

Are gehiago, nola uler daiteke, Anboto mendilerro guztia ez barneratzea parke natural batek? Zergaitik ez da Mugarra eta Untzillatx mendiekin batera Udalatx ere parke naturalean barneratzen?

Ildo honetatik, harrobiak ezezik AHT-a ere zuzenki loturik dago, gure herritarrei ardura handia eragiten dien gaia. Azpiegitura izugarri hau eraikiko balitz, natur parkearen mugetatik metro eskasetara eraikiko lukete. Nola uler daiteke, natur parkeak inongo ikerketarik egin ez izana edo inongo partehartzerik eduki ez izana AHT-a eraikiko balitz gure lurretan izango lukeen eragina ekiditeko? Norbaitek sinesten aldu ez lukeela inongo eraginik izango?

Azalduztako guzti honek Parkearen izaera bera zalantzan jartzen du. Horregatik, 20 urte ondoren, Urkiolako Parke Naturalak badu zereginik.

Lehena Urkiolako Parke Naturalaren funtzionamenduaren demokratizazioa. Patronatua organo konsultibo bat izatetik erabaki gune bat izatera pasatu behar da, herrien eta agente sozialen ordezkariekin erabakitzeko eskubidea izan beharko lukete, beraiek baitira jokoan dauden interesen protagonista zuzenak eta ez Bizkaiko Foru Aldundiko politikariak.

Bigarrenik, Urkiolako Parke Naturalaren helburua naturaren babesea bada, AHTaren aurkako posizio aktibo bat hartu behar du.

►►► **Continúa en página 49**



JON SÁENZ AGIRRE

URKIOLAREN ALDEKO BATZORDEko kidea
90eko hamarkadan

◀◀◀ **Continuado de página 36**

Etorkizuneko erronkak

Etorkizunera begira, erronka bi aukeratuko nituzke. Bata, baso politika da. Pagadi asko oso zaharrak dira eta pinudi gehiegi dago. Uste dut alde horretatik lan itzela dagoela egiteko oraindik.

Bigarrena harrobiak dira, dudarik gabe. Momentu honetan harrobi asko dago, edo barruan edo mugan, eta gehiago zabaldu nahi dute. Harrobiek sortutako kalteak konpontzea ezinezkoa da. Teorikoki, administraziotik eta enpresetatik planteatzen diren gauzak konponbide bezala plazaratzen dira. Hau da, esaten da zuhaitzak landatu behar direla, baina ezin da ukatu zuhaitzek ez dituztela amildegia estaltzen. Kasu honetan, behintzat, zuhaitzek maldako basoa ikusten uzten digute. Esaten da malda handiek suposatzen duten arazoa konpontzeko malda leunagoak egin behar direla, baina hori, praktikan, harrobien ustiapena luzatzea baino ez da. Eta luzatze hori ez da makala izaten. Arazoa sortu duten enpresek eskatzen dituzte ustiaketa epe luzeegiak “berreskuratz” lana bera errentagarria izateko. Hori, nire iritziz, tranpa egitea da. Legearren arabera, ustiapena martxan egon den bitartean, enpresak aurreztu behar zuen ustiapena bukatu ondoren berreskuratze lanak aurrera eraman ahal izateko. Nik, behintzat, horrelako gauzetan ez dut sinesten. Ez nuen duela 20 urte sinesten eta, oraindik ere, jarraitzen dut sinestu barik.

PELI MANTEROLA

Bizkaiko Foru Aldundia.
Mendi eta naturguneen zuzendaria

◀◀◀ **Continuado de página 38**

4. Zergaitik izendatu eben parke natural?

Parke Natural bat balio natural, kultural eta paisajistikoaren arabera izendatzen da. Hau da, bere singulartasunaren arabera. Bizkaian hiru parke dauaguz: Gorbeia, Urkiola eta Armañón.

Urkiolaren kasuan beharrezkoan zan denboraren, suteen eta harrobien eraginez, landaredian eta naturan sortzen hasi ziren aldaketak geldiaraztea eta kontserbatzeko muga batzuk jartzea.

5. Ze urtenbide dauka natur parke baten barruan harrobi jardunak?

Hitz batean esateko: mugatua. Dena den hau azaltzeko garrantzizko da aipatzea badagoela baliabide naturalak kudeatzeko plan bat, (Plan de Ordenación de los Recursos Naturales). Edozerk zelan funtzionatzen dauen jakiteko jarraibideen liburuxka bezalako dokumentu mardula da.

6. Ze erronka ditu etorkizunean?

Zalantza barik orainarte ereindako lanen fruitua bildu behar dogu eta ereiten jarraitu Urkiolako Parke Naturalaren kontserbazio eta kudeaketa bikaina lortzeko. Funtsezko prozesu ekologikoak mantendu eta suspertu behar doguz, aniztasun genetikoa zaindu, baliabide naturalen produkzioa hobetu eta indartu.

ANTTON ARANBURU ALBIZURI

*Jefe del Servicio de Biodiversidad
del Gobierno Vasco*

◀◀◀ **Continuado de página 42**

conservación quedan mermados en beneficio de intereses de explotación de los recursos mineros, forestales o industriales.

No quiero concluir este somero repaso de mi visión ante el 20 aniversario de la declaración del Parque Natural de Urkiola sin constatar que desde el inicio de la política de protección de espacios y especies a la que al principio de este escrito me refería, se han dado avances muy importantes, pero que queda todavía casi todo por hacer, teniendo en cuenta la demanda social y el conocimiento científico actual.

La Red Natura 2000, actualmente en desarrollo e implantación en nuestro territorio junto con la delimitación y gestión de los corredores ecológicos tanto interiores de nuestra comunidad como con los territorios colindantes exteriores a ella, convencidos de que la conservación de la Biodiversidad y el Paisaje, no atiende a delimitaciones administrativas, así como una creciente actividad investigadora sobre la Biodiversidad y el Paisaje, son las tareas a las que nos enfrentamos en el momento actual para hacer frente al reto de ofrecer un legado territorial a las generaciones futuras con un Patrimonio Natural bien conservado, recibido de nuestros antepasados, que hemos usado y disfrutado y en la medida de lo posible hemos incrementado en valor.

ONINTZE OLEAGA

Atxondoko zinegotzia Urkiolako patronatuan

◀◀◀ **Continuado de página 46**

Gure babesturiko natur eremua ez hondatzeko, bestela alferrik dugu Parke Natural bat.

Eta azkenik, Parkearen lur eremuak handitu eta erreserva gune zabal bat ezarri behar du, zeinak gure natur baliabideen benetako babes eraginkor bat bermatuko duen. Ez al da ba hori Urkiolako Parke Naturalaren helburua? Badugu zereginik arlo honetan, eta beraz, jarrai dezagun lanean herri txikia ez dadin txikitua izan. **a**

